

Nazio Biltzarraren Adierazpena

**BURUJABETZA ERABAKITZEKO,
BURUJABETZA ERALDATZEKO**

2015eko Irailak 17



Ur bizien eta haize indartsuen garaian sartu gara. Kurtso berriaren hasiera burujabetzaren aldeko mugimenduak markatuta dator; ur biziak, independentismoak, epizentroan kokatuta, eragin eta eragingo duena.

Independentismoa erreferentzia nagusi izango dugu ikasturte honetan. Katalunian abian den prozesu soberanistak Euskal Herrian ere burujabetzaren bidean abiadura bizkortzeko egokiera ematen digu: abiada bizituz herri libre bate-ranzko prozesua hauspotzeko ahalegina biderkatzen ari da ezker soberanista. Bidean aurrera urrats sendoak finkatzea ekarriko duen gogoetari ekin dio Ezker Abertzaleak. Eta bada gehiago, oraindik ere auzi juridiko-politikoetan gure herria zigortzen jarraitzen duen Espainiar Estatu inperialistari emango diogun herri sententzia kasu, Askapenaren eskutik eto-riko dena.

Espainiatik joan egin nahi dugunok markatuko dugu kurtso politikoa, baina hori gerta ez dadin, ufada independentista-ri leihoak itxi eta eztabaida ito nahian dabil EAJ. Arrazoi bat eta bakarra dago prozesu soberanista ez defendatzeko, aldaketa sozialik nahi ez izatea. Eta zentzu horretan, agerikoa da EAJren borondatea.

Aldaketa da Katalunian gehiago sozialak eskatzen duena. Herriak erabaki du bere etorkizunaren jabe izango dela. Herri borondatea, herri aktibazioa da han giltza, estatu propio bat eratzeko prozesu politikoaren oinarria.

Espainiak krisi ekonomikoa baliatu du eskubide sozialak eta laboralak suntsitzeko. Ez dago irtenbiderik aplikatzen ari diren politiketan. Egungo marko konstituzionalak gure eskubideak txikitzeko aukerak ziurtatzen dizkio botere ekonomi-koari, eta herritarroi, langileoi, geure interesen defentsarako alternatibak eraikitzeke aukera guztiak lapurtzen dizkigu. Arazoa ez du hazkunde ekonomikoak konponduko. Benetako aldaketa politiko eta soziala behar da, eta beraz, kon-ponbidea beste bat da: burujabetzaren alde gaudenon arteko gehiengoak eratzeta, zilegitasun sozial eta politikoa duten prozesuetan aurrera egiteko.

2

Katalunian nahiz Euskal Herrian estatu propioa eraikitzea posible izango da, baldin eta jendartearen gehiengoak hala nahi badu. Pultsu soberanistaren garapena argigarria izango da Espainiar Estatuak bizi duen lurralde krisiaren aterabidea fin- katzerakoan ere. Aldaketa konstituzionalaren eztabaidak emaitza bat eta bakarra behar du Katalunia eta Euskal Herriarentzat: konstituzio propio bat eratzeko aukera. Eskubide hori ez da berez emango, ez digu Estatuak aitortuko. Herri aktibazioa eta gehiago sozialaren bidea erabakigarria izango dira.

Independentzia, aldaketa sozialerako giltza

Independentzia da tresnarik eraginkorrena Kapitalismoaren parametroen aurkako sistema eraikitzeke. Independentziak erabakitzeke eskubidea berreskuratzea ekarri behar digu langile klaseari eta eremu desberdinetan borrokan diren herri sektoreei.

Independentziak ez du berez aldaketa soziala ziurtatzen, baina independentziarik gabe ez dago aldaketarik. LABentzat independentziaren aldeko borroka Euskal Herrian bizi diren pertsona guztien eskubideak bermatzeko borroka da. Zerbitzu publikoen defentsa, pentsioak, aberastasunaren banaketa justua, emakumeen eskubideak, kalitateko enple- guaren sorrera... gai garrantzitsuegiak dira, guztiak ukatzen dizkigun Estatuaren esku uzteko.

Estatuarekiko desanexio prozesua diseinatu eta errealitatea aldatzeko aukerak emango dizkiguten instituzio propioak eratzeko beharra dugu. Estatu propio bat eraikitzeke beharrezko diren baliabide ekonomiko eta politikoak berreskura- tzea ezinbestekoa zaigu, nola Katalunian hala Euskal Herrian, bakoitzak bere bidea egin dezan.

Une erabakigarria bizi dugu. Eremu politikoari ez ezik, eremu sozial eta sindikalari ere gogoeta egitea dagokigu. Inplikatu behar dugu, premia nazional bati erantzuteaz ari gara. Kataluniak ulertu du herri premiari erantzutearen beha- rra. Euskal Herrian ordua dugu gure herriaren interesak Madrilgo interes eta aginduen gainetik jartzeko.

Sindikalismoaren paperak berebiziko garrantzia du; independentziarantz eramango gaituen bidean, eremu sozial eta sindikala akuilu izan behar da. Langileria bide horretara erakartzea da gure erronka, independentzia, Estatu propioaren eraikuntza, langileriaren interesak defendatzeko biderik egokiena dela argi dugu.

Independentismoaren bidea jorratzen ari garenontzat irailaren 27a erabakigarria izango da, Kataluniako Parlamentua baino askoz gehiago baitago jokoan.

LAB sindikatutik, Euskal Herritik, dei egiten diegu kataluniarrei, independentziari eta aldaketa sozialari leihoak parez pare irekiz hautesontziak bozka independentistez bete eta behin betiko Estatuaren krisia lehertzeko.

Herrien burujabetza da Estatuak inposatzen diguten diktadura ekonomikoaren aurre egiteko biderik egokiena. Burujabetza erabakitzeko, burujabetza eraldatzeko, Euskal Estatua eta Kataluniako Estatua errealitate izan daitezen.

Lluitarem totes juntes fins la victoria final!

Visca la terra!

Gora herri askeak!